

LITERATURA ETA EUSKAL IRAKASKINTZA

joseba intxausti

Ondoren emango ditudan oharrak ez dira berriak; orain bederatzi urte Euskaltzaindiaren bilkura batean emanak (Aranzazu, 1963-ko irail-urrietan) eta "Euskera" aldizkariaren horrietan argitaratuak baizik. Geroztik euskal urek ibilaldi luzeak egin dituzte, baina oraindik ere baliagarri gerta daitezkeelakoan nago. Hamalau-hamabost urtetako mutilentzat pentsatua eta berengan frogatua da hemen ematen den teoria eta praktika. Batxileratuko (ordukoa noski) laugarren eta bosgarren urteetakoentzat erabilia izan da; eginahala hauetan oraindik ere gehienbat egiteko dadukagunez, hemen biltzen diren ideiak probetxagarri direla pentsa daiteke.

49 ikaslerekin erabili da metodu hau eta, geroztik ikusi dudanez, ez zen erabat alfer lana gertatu. Honegatik, beldur ximiko batekin bada ere, beste irakasleren batentzat lagungarri izan dadin ausartzen naiz "Jakin"-eko ale honetan argitara ematen.

I. POESIAREN BIDEETATIK

Jakina denez, poesia eta bertso ez dira gauza batbera; bata, bertsoa alegia, jazkia da, kanpotik erantsi den zerbait; bestea, berriz, barneko bizi-jarioa da, literaturaren argia eta ederra, izadiaren gozoa eta lilura, hitzetan elurtu eta isuria. Mintzaira, poesiaren mirariz, eder bilakatzen da.

Literaturaren eder jario hori gizonaren sorkari da, beronen-gandik sortua, eta eder horrek giza-izpirituarekin zuzeneko zerikusia du. Eta, zalantzarik gabe, literatura ikasi eta aztertzean, ikasleak ez dezake inola ere dastatu gabe utz. Irakaslearen egin-kizuna da ikaslea honelako taxugabekeriatik gordetzea. Areago: maisuak iratzarri egin behar du haurragan lozorroan dagoen edermana.

Giza-izakia osotasun bakar bat da: adimen—edermen—oroimen—nahimen—zentzumen—barneramen... Guziok giza-osagarri dira eta sakabanaezinak. Honegatik, haurrari hizkuntza gramatika hutsez eman nahi izatea, heziketa lana erabat murriztea eta giza-izpirituaren joera sakonen bati uko egitea da.

Freud-ek (1923) giza-nortasunaren barne-egitura erakutsi zigunetik badakigu, gizatasunaren barrunbea uste genuen baino ugarikoitzagoa dena, benetan konplexua. Denok ikusia dugun irudi batez esateko, pertsonatasunean dantzari-talde baten antzeko zerbait gertatzen da. Doinu bakarrak —kanpotik datorkigun dei bakarrak— zortziamabi gizon jartzen ditu jauzika, elkarrekin eta elkarren aurrez aurre. Bakoitza guzientzat ari da, eta ez dezake inork bere gisarako dantzarik asma; doinu bakarraren deira talde osoak erantzuten du, ez denak berdin, baina bai orok elkarrentzat. Honelatsu giza-izpirituan ere: irudiari jarraituaz esateko, giza-ahalmenak ez dute sekula bakarkako aureskurik. Ideia, sentipen, nahiz irudi batek dena eztenkatzen du eskinera. Holakoxea da giza-izaera.

Idea baten egunsentiaren xori-xiuntarekin hamaika gogoeta zahar irazartzen da. Gure barneko mendi-zelaietan ehundaka oihartzun datoz hitz-berritze baten ondotik. Heziketak, aberastasan posible eta egiazko horiek ezingo ditu ahantz. Euskera irakasterakoan ez gaitzeko geldi gramatikakerietan. Xori librearen irudiko da izpiritua, libre barnearen zeru ozkarbipean. Heziketa zuzen batek, hizkuntzaren oparotasun osoa haurrari txertatzea eskatzen du.

Hainbat aldiz entzuten ari garenez, heziketak gizatasun bideak ireki behar ditu. Gizagintza da irakaslearen lana, eta hori herri baten barnean, izan ere benetako herritasunak gizagintza bultzatu besterik ez bait du eginen. Gizabanako bakoitzari gizabide bat zor dio heziketak, eta, gizabide hori konkretatzen dugunean, herrikide bilakatzen da haurra. Herritasunak ez du inondik ere giza-jatortasunik ukatzen, *hemen eta orain* bete eta mamitzen baizik. Honegatik, euskal haurra hezitzean, gizabanako honengan gizagintza burutzen ari gara. Eta, goian esan dugunari jarraituaz, euskal heziketak gizona egin behar du eta bere osotasunean egin ere: *euskeraren irakaskintzak gizona sakontasun guzian hezi nahi baldin badu, hitzaren liluraz eder-sena iratzarriaz egin beharko du.*

Sar dezagun euskera behin betirako eta sekula guzietarako edukazio jatorraren bideetan. Haur bakoitzak, bere baitan darman orkesta isil eta aberatsa esnatu behar du edukatzaileak. Betidanik noski, baina hamar-hamabi urtez gero berezikiago oraindik, gramatika-zarpilkerietatik ihesi, eder-bideak eskainiko dizkiogu haurrari. Bestelakorik egitea, literatur eginkizuna ukatzea litzake.

Heziketak, jakitate eta sentipen batera bizkortu behar ditu haurrak, Mme. Staël-ek nahi zuen bezala. Eta eder-sentipena, daki-danez, ez da gramatikaren mandio armiarmatsuetan gordetzen. Gehienbat, handik kanpo agian. Norbaitek esan duenez, penagarria da ederraren edukazio-balioa ikusi ez duenaren itsumena.

Heziketak, haurra bere inguruarekin harremanetan jartzen ahalegindu behar du; baina edermenaren harreman bidea ahazten duenak oinarrizko hezibide bat ukatzen du, inguruarekin nahi den harreman hura deseginaz. Heziketarentzat humanismo eta euskaltasun arrazoizkorik eskatzen baldin bada, ezingo da eder-bidea ahantz.

Haurraren izpirituan euskerari halako sakontasunik emateko, gizatiartu egin beharko da gure haurren heziketa. Giza errotik bertatik dator euskalduna euskaltasunez jantzia; euskalduna ez da lehenen gizon eta gero euskaldun, dena batean eta izaki bakarrean baizik. Eta gizatasunari dagokion sakon-zabaleko euskera emango diogu haurrari. Baina ez da gizatasun horren neurriko euskerarik izango, gizon osoa zehar eta giza ahalmen guzien mediod lan egiten ez bada. Giza izpirituaren erdi-erdian, bihotz-bihotzean, zuzter-zuzterrean landatu behar da hizkuntza, hortik aldiaren harian nortasun osora zabal dadin. Honela, landareak gogo osoaren gozoa izango du, edozein gogo-izpi ikutzea euskal zuzter bat mugitzea izango da: euskera gogo-gogoari txertatua geldituko litzaiguke. Gure gizaera euskeraz mamitzen baldin badugu, gizabide hauetatik egin dugulako izango da.

Euskerak, gizatasun osoari begira dela, bete behar du bere zeregina, ez bait dezake gure gizatasunetik fitsik ere arbuia. Eta eder-mundua oso gizatiarra da, geure geurea, nahiz eta zenbaitetan isilarazia izan.

Eta eskuarki aipatu den eder horretatik *hitzaren ederra* aztertzera baldin bagatoz, zer? Hitza beti izan da misterio. Bere baitan giza gogoaren beraren taupada darama, hitzaren erraietan bizia isuri bait du gizonak. *Hitza* ez da ideia soila, *ideia maitemindua* baizik: ideiare gizonaren sentimendu, irudipen eta intziriak erantsi zaizkionean, hitza argitara jaio daiteke. Hitzaren ideia atzeman orduko, isilpeko hainitz sentimendu hegadan doakigu gure gogoaren urdin sakonenean. *Ama* entzutean, ez zaigu mundura gizaki

bat ekarri zuen emakumea bakarrik aipatzen. Hitzak hori baino gehiago *nahi* du: honela edo hala maitatu nuena da *ama*; ni neu ere maitatu ninduen; gaiso nahiz triste nengoela, betidanik ondoan izan dudana... Bai, hitza sentimenduz troxaturiko ideia da, eta areago, zenbaitetan sentipen hutsa ere bai.

Gramatika, hizkuntza eman nahirik, arrisku batean eror daiteke: gramatikakerian. Behin egin dut gramatika lan bat; baina amodio-gose zaratenok ez joan, mesedez, hara. Arrazoikeria hutsaren lejiar hitza sentipen orotatik garbitzen baldin badugu, azkenean ideia bera ere erre egingo dugu. Unamuno-rentzat hizkuntza izpirituaren odola da, eta odol hau ez dezakegu gure barne sentimenduen lisibarako erabil. Ez. Aintzira batetara bota ahal duzue inoiz harritxo biribil bat? Hara nola joan zen barnera, adimenera ideia bezala, eta ikus nolako uhinak uraren loan, hitzak gure gogoan biztu dituen sentimenduen iduritzat.

Hizkuntzak giza-izpiritua darama bere golkoan, eta ez zaigu zilegi aberastasun hori ideia elkor batzuetara herstea, mugatzea. Gaurko euskaldunok denok konprenitzen omen dugu erdera: konprenitu!, baina besterik gehiago? Euskaldunon gogo konzeptu poligonoz betetzea bakarrik balitza, osatuak ginake; baina hizkuntzak bestelakorik ere eman behar liguke. Ez da aski konzeptua, gizaki osoak izan gaitezen, areago jo behar du mintzairak eta sentipen-bidetik deus guti ematen digu askotan erderak. Eta hori horrelaxe izango da tipi-tipitatak euskera inausten ez diguten birtartean. Hitzen ideiak maite ditugu, eta baita sentigarriak ere!

Hezitzaileen eginkizunetako bat haurren eder-sena ere euskeraz edukatzea izanen litzake. Haur bakoitzak bere baitan duen euskal artistaren euskaldungoa gorde nahi bada, baitezpadakoa da hau dena. Guk ere, zorionez, badugu euskal haurrengan, beren gizatasunaren osagarritzat, eder-sentimen bat, bere horretan irau-narazi eta bizkortu behar duguna .

Gizonak nonahi idoro dezake ederra, eta ikasleari hori dena

aldez aurretik euskeraz ikusarazten baldin badiogu, edertasunaren indarra eta erakarmena ere geure alde izanen ditugu. Gaizki ez banago, honelako zerbait esan nahi digute *herriaren euskera* erabili beharko litzakeela eskatzen dutenek. Euskera batua behar dugu, baina euskera bateratzailleok ez gara oraindik hizkuntzaren benetako estilista. Eta, honetan, hizkuntza fosilizatzeko arriskuan ari gara lanean, eta bekatu hau gainerako hizkuntzatan ere salbaezina izan arren (guziek behar bait dute mintzaira *standard* bat, eta hain zuzen hori da guri askotan falta zaiguna), ederbi-deak sasipetuko ditugunaren beldurra eta kezka gurekin behar dugu izan, euskeraren batasuna egitean. Euskeraren batasuna ahalik lasterren burutzen ez ahalegintzea hainbateko itsumendua litzake, batasun horren atxakiatan galduta, hizkuntza *oso-osorik eta behinbetirako* standardu nahi izatea. Bide zuzena ez da errazki asmatuko, noski.

Hizkuntza orok du edermen bat, eta euskaldungoari sekulako saldukeria egingo litzaioke euskerari berez duena lapurtuaz. Bide honetatik lanik ez egite hutsa ere oso kaltegarri gertatuko zaigu. Ireki ditzagun leihoak eder-mundu miressgarrira!

Haurren eder-sena euskal literaturaren deira iratzartzen ez baldin bada, begira zer jazo litekeen: mutilik azkarrenak eta argienak herbesteko giro batetan jaioko zaizkigu literatur mundurako. Eta honelakorik gertatzen den bakoitzean, irakasleak pentsa dezala noraino den bera errudun... Eta honelakoak askotan gertatu dira, eta honelaxe galdu ditugu gure artean asko eta asko.

Haurren gogoan oinarritzkoa da eder-sena, eta gizalege honen kontra ari denak ez du heziketa zuzenik egiten. Euskeraren eta ikastola lan guziaren ekinak hemendik jo behar dute, azkenean izan ere mundu guzia konprenitzeko erosotasunik gozoena bait da. Agian, mistika-une zenbait salbu, nekez idoro liteke eder-sentimenduak baino giza ahalmen gehiago ekintza bakarrean bultzat-

tzen dituen deus. Baina gure poesia gramatikan —hizkuntzaren kalaberaz eginiko presondegi horretan —ito nahi badugu, eta ikasleak elkorkeria honekin lotzera erabakiak baldin bagaude, beste nonbaitetik helduko zaie poesiaren ederra —edo okerrago: ez zaie iritsiko—, eta bestek eramango ditu gure urak bere errotara.

Eder-sena munduaren beraren osagarri da eta ez genezaioke gure haurrari sentipen hori uka. Sartre-k nahiko poliki agertu du munduaren eskasia: *Gauzak, bide-erdia bakarrik egin duten ideiak dira*. Mendia, zuhaitza, ilargia, ihintza, gizona bera, guziok ez bait dira izan ere beren izan-goseak, izan-gura hizkuntzak nahi lukeen hainbat, eta guk, geuk, sentipenez osatu behar ditugu, izanean diren neurria gainditu dezaten. Osa-behar honetan (izadia atzeman eta osatzean alegia), estetika sentipenak betekizun hauk ditu:

—Irakurleak jaso dezala olerkariaren mundu antzaldatua objektutasun eta sujetutasun osoan.

—Izadia bizipen unibertsalista batetan atzeman, artea gizona eta guzientzakoa bait da.

—Ikaslea askatasun ekintza batetara eztenkatu, artea bere izaeraz zeharo librea bait da. Honela, gaztearen libertade eskeari ere irtenbide bat ematen zaio.

Lehenen bi pondu horiek ez daitezke beste medioz ardiets, eder esperientziaz ez bada. Izadiaren bizipena, eta horretarako ederraren bidezkoatasuna, premiazkoak zaizkigu gizonoi, eta eder esperientziara bultzatzen ez dugun haurrari eta gazteari izaerazko egarri hau ase gabe uzten diogu. Eder-sentipenak munduaren esperientzia berri bat ematen du: *estilo bat*, izan ere estiloa munduaren eta bizitzaren ikusbide berezi bat bait da. Honegatik, estilorik gabeko gizona eskasa da, pobrea bere pertsonaren sakonean.

Munduaren poesitasuna, hizkuntzaren ederra, literaturaren

olertia beharrekoak ditugu gizaera oso batetarako. Ederrak halako erakarmen berezia du gaztearen —nexka nahiz mutiko— gogoarentzat, eta lehenbaitlehen erakutsi behar zaie gure poesia. Txunditurik geldituko zaizkigu euskal poesiaren oparotasuna ikusita. Hemendik hasita erakus dezaiokegu ikasleari euskerak sortu dituen estetika balioak. Jakin dezala gure herritasunetik ere horrelakorik sortzen ekin daitekeela. Ez da hau beti ongi eta behar bezain argi ikusi.

Orain hogeitun urte, genuen zenbait ikastetxetan ikusia tamala da. Orduko giroak ez zuen gaurkoak hainbat laguntzen euskera sakondu eta aurrerago ere jo genezan. Bazen orduan ikastetxe bernetako aldizkaritxo bat, erderaz eta euskeraz idatzia. Erderaz egitera ausartzen ez zirenak euskerara ahalegintzen ziren... Ikaslerik eskasenek egiten zuten euskeraz; ez genuen lortu oraindik euskerarentzat halako gizarte-itzalik, eta, uste dudanez, askotan gramatika hutsetan genbiltzelako.

Pedagogia aldetik ez da batere egoki hizkuntza hizkuntzarentzat berarentzat erabiltzea, eta euskeraren narzisisimo arriskua aldentzeko aipatzen den metodologia aproposa litzake haurrentzat. Eder-mina euskera bidez biztèn baldin badugu, hori ere gure alde izanen dugu. Eta gutien espero denean egokitzen zaigu holakorik; barka bezait irakurleak oroitzapen bat, adiarazi nahi dudana ager dezaiodan.

Oraindik gogoan dut une hura. Hamasei-hamazazpi urte nituen. Hazitxoak, beraz. Zenbat izerdi ordurarte, nonbait bizi zen ederra ikusi eta ikutu nahirik, hauxe bait da sarri askotan mutikoaren nahi-eta-ezinaren borroka ikastaro bakoitzean. Ni ere ezinak ninduen gatibu: beti haruntzaxeago zebilen ikusiezineko ilusioa. Eta, hara!, bapatean eskuratu: bera etorri zitzaidan, ez nintzen ni mogitu, eta neure eskuetan nuen edertasuna! Udaberriko (betikoa...) arratsalde ozkirri bat izan zen, eta egun haretako azken ikas-ordua. Errigoiti aldetik zetorren argia, hilbera eta gozo.

Mutilok ikasten geunden. Badakit oraindik eserita non nengoen. Leihoak zabalik zeuden. Urte haretan bezain misterioitsu ez dut sekula sentitu izadiaren udaberrietako iratzar-ordua. Ikas-gela aurreko udare zuhaitzak orduantxe ari ziren lora-edurrak urturik, horriz jazten. . . Instant haretantxe ikusi nuen nik hitzaren ederra eta liluramendua. Harrez gero, nere ustez, badakit nora jo behar dudan idaztean; gehienetan ez naiz helduko, baina norakoa barnean daramat. Sentitua eta atzemana izan da ene baitan.

Euskera, heziketari lagunduko dion zerbait izan dadin, hauxe da gure eginkizuna: une hori eta ondokoak haurrari euskal lanean etor dakizkion ahalengindu. Nonbaitetik ematen zaigun eder-lo-rategi hau euskal amantalean eskain dezaiogun. Esan dezala mutilak nahiz nexkak: *hau duk nere mundua, euskal idazle izango nauk!* Agian, maila apalago batetan geldituko zaigu; baina jakin dezala, jakin, euskerak ere eder-mundu oso bat duela berarentzat.

II. IRAKAS METODUAK

Hamaika eta erdi era eta modu badira edertasuna zabaldu eta aztertzeko, baina horietatik denak, edo gehienak, hiru hauetara erakar litezke. Bide hauk ez dira noski euskerari bakarrik dagozkionak, hizkuntza guzienenak baizik.

A) Edermenaren heziketarako hiru helburu

Edertasun-bidean irakasbide denak ez dira maila berekoak. Eta komentario denek ez dute zeregin ber-bera. Eman ditzagun hemen horietatik hiru:

- a) *Eder-gosea biztu*, ederraren zastada sentiarazi. Arestian aipatu den eder-sentipen horretara heldu. Hau agitz inportantea dela uste dut, eta gero etorriko direnetarako

lehenen maila. Une unki garri hura guban suma bageneza, ederrerako deia gure baitan dukegu betirako.

- b) *Ederra sortzeko teknika*: ez eder-etorria lotzeko, aurkezpen-erosotasunak emateko baizik. Betebehar honetarako egokia da benetan Correa-Lázaroren liburuska. Ez da derrependean ongi eta nahi bezala erabiliko, baina erabiliaren erabiliz laster menpera daiteke. Bai egoki etorriko litzaiekeela holako zerbait euskal atalei ezarria.
- d) *Izadia ezagutu eta hizkuntza aberastu*. Rizzi-ren jardunbidea aproposa da honetarako; baina, aurrera eramanez, ez daduzkagu gaur-gaurkoz Euskal Herrian beharreko genituzkeen hiztegi eta liburuak, eta zahartu ere egingo gara dena ardietsi arte.

Honera heldu garenez gero, ikus ditzagun hiru eginbehar hauetarako erabil litezkeen metodoak. Lehenik, xehetasun gutirekin, metodo bakoitzaren teknika emango dut; ondoren, hori bera komentario batean erabilia izanen da. Ez dago zeresanik: hirurok, goiko poesi urrats horiek (a,b,d) emateko hartzen ditugu.

B) Hiru irakasbide

Hiru eginkizun horietarako tresnak eskaini nahi genituzke hemen hiru metodo hauekin. Ez dakit onenak diren eta, uste dudanez, akats eta hutsuneak izango dituzte; baina bere egunean irakaskintzan frogatuak izan ziren eta fruitu onak eman dituztela esango nuke.

Edermenaren iratzarbidea

Gizon bakoitzaren baitan dagoen eder-sena iratzartzeko pentsatua da metodo bide hau, ikasleen aurrean bertan eder-izadia jaiotaraziaz. Lan honek irakasleari berari eskatzen dizkio lehenik

halako koalidade egokiak, olermen bat esan nahi da, poesi-jarioa. Dena dela, hemen ere —beti ez izanarren— ibiliaz ikasi beharko du irakasleak.

a) **MUGARRIAK:** Lau unetan osa daiteke metodu hau:

1. **Irakurri:** Geldiro irakurri behar zaie mutilei. Arreta guziz. Sentidu guzia gordeaz. Beharbada ez dira guziaz jabetuko, baina hutsune hau hurrengo ponduan beteko da. Hemen aski zaigu ongi irakurtzearekin.
2. **Ulertarazi:** Ez du fitsik gelditu behar ilunbetan. Dena, oso-
osorik, atzeman behar da: hitzak, esaerak, etab. Ez da esan nahi derrigorrez, literatur irudien zergatia ikusi behar denik. Aski da poesi atala bere literaltasunean konprenitzea.
3. **Sorbide:** Komentario honetan hau da mementorik garrantzizkoena. Hemen jarri behar ditu irakasleak gogo osoa, bere etorri eta ahalmen denak. Eskutik eraman behar ditu izpiritu gazteak, bere bihotzaren eder taupadak sumaraziaz, edertasuna ikutzeraino. Komentario-une hau da bereziki ikaslea eder-izadian esnarazteko berebizikoa. Zeregin hau betetzen badu (ez noski lehenen ahaleginarekin), lortu du nekezena.
4. **Berriro irakurri:** Irakaslea nahiz ikasle bat deklamatzaila ona balitz, hainbat hobe. Irakurri ondoren, deklamatu egin dezake orduan. Ez du olerkiak eta edertasunak deus galduko, asko irabazi baizik. 3-gn. ponduko komentarioaren ondoren, askozaz ere kapazago dugu ikaslea olerkiaren ederalioa dastatzeko: orain, ideia eta sentipenak bat-bat eginik, beren osotasunean ikusiko ditu.

b) **SAIAKERA BAT:** Gandiaga poetaren **Elorri** liburutik (77 horr.) jasotako olerki bat hauta genezake jarduketa hau egiteko.

1. **Irakurri:** Begiratu dot, ta, ixiltasunak
bakartasunez bildurik nauka.
Klaustro mortuan gelditasuna:
haize gabeko ur lo bat dago.
Ez dagi arnas aide argiak
ezta zirkinik mututasunak.
Noizik-behineko pausoak, praile bakarra.
gereiza dira... gauza baino.

Sortzen ez diren berbak badeutsa begirunerik zerraldo datzan aide zuri eta santuari.

Begiok hemen. Begiok, dinot,
eta arimea jabetu jataz, entzumen hutsez,
amestu nitun bazterrak baino harutzagoz.

Eta bihotzak
komentutzar hau, neurea, dino,
gogobete ta nagusikiro,
berekaxa.

2. **Ulertarazi:** Eman dezaizkiogun ikasleari behar diren hitz eta esaeren esanahiak. Hona adibidez: **Mortu** = desierto. **Zirkin** = movimiento. **Gereiza** = sombra. **Zerraldo** = yacer largo. **Datza** = etzanda dago, yace. **Jabetu** = adueñarse. **Entzumen** = oído. **Komentutzar** = komentu handi. **Gogobete** = satisfecho. **Nagusikiro** = como dueño.
3. **Sorbide:** Hitzez hitz joango gara aintzina, eta pauso bakoi-tzean, eder-jauregi honetan, ate berriak irekiko zaizkigu. Poesia honen gaiak eskatzen digunez, klaseko isiltasuna urratu beldurrez mintzatuko gara:
Begiratu dot: Begiak zabalik, dena begi, ikusmin, begi mi-restuak arima-begietan. Gogo kristalezko begi egin zait. Klaustroan ez naiz gorputz, izpiritu hutsa baino.
Ta: Gogo gorpuzgabetuak bihotzaren taupada mundura luzatu du.
Ixiltasunak: Isila ez da ezer, ez da zerbait. Astratua da hemen, eta deusezaren isila gainera: isila ezerezean mur-gildua.
Bakartasunez. Ezerezaren jantzia. «Bakarra» Urليا hegada geldian bizi da soilik. Luma ikusiezinezko dama da bakartasuna.
Bildurik: Haize gozo-biguna bailitzaxe, maitasunak bihotza bezalaxe, bururakizun epel batek gogoaren gisa. Bakartasuna jantzi bihurtu da.
Nauka. Eta hortxe naduka eduki ere isiltasunak bere bakartasun-sehaskan.
Klaustro: Horra klastru hutsa, kristalezko kupulapean. Argi-makutsean dena.

Mortuan: Ez dago ezer, ez da deus ageri, desmateriatur oro: izakiak argi-labetan desegin dira.

Gelditasuna: Hitz luzea, eroria, astratur. Mortuan bada zer-bait, bada norbait: gelditasuna argitan.

Haize gabeko: Haizea uraren (ikus ondotik) lagun zen, baina desegin da arrunt, erabat: bere baitan gelditu egin bait da haizea.

Ur lo bat: Tantoka-tantoka gelditasun gardena (hitzak ere tanto eta apur dira beren silababakarrean); dena bakan ezerez argitsuan. Haizerik ezak loa eman dio urari, giroari.

Dago: Haizea hil egin bait da.

Ez dago arnas: Aidearen zirkinik kaskarrena arnasa izan liteke, eta hori ere eskas du: aidea hil egin da.

Aide argiak: «Aide» eta ez «haize», gelditasuna adiaraziaz.

Argiak: argia bakarrik bait da zer eta nor klaustruan.

Ezta: gelditasunaren geldia lerropetuz.

Zirkinik: Mogimenduetan tipiena da hori (ia beti ezezko esaeratan erabiltzen da: ez du zirkinik egin...). Onomatopeia-balioa: i horiek izkribu-eraz bezain hertsia bait dira hotsez ere.

Mututasunak: Hitz luzea, aldenik aldekoa, eta u horiekin betetasun oparo eta jausia duena.

Noizik-behineko: Pausoak ez datoz jarraian, ttiki-ttaka bizian, holakoek gelditasuna hautsiko bait lukete. Aldianaldian datoz, banaka-banaka.

Pausoak: Hitzak bezain materiatur guti. Bokal asko, eta konsonanteetatik s goxo bat.

Praile bakarra: Bakartasunaren mortua, norbait agertzean, nabarmenagotu egiten da, sentigarri bihurtzen bait du mututasunaren dardara.

Gereiza dira: R bigun horien neurriko gereiza. Gereiza ezin hunki eta pausoak berdin. Pauso-hotza desmateriatur egin da berriz ere.

Gauza baino: Pausoek ez dakarte ezer, desgauzatur datoz banan-banan.

Aide zuri: Aidea argi eginik: zuritasun dirdaitu bat erori da zerutik.

Santuari: Zerutik bait dator, eta garbia da: komentuko santutasuna hantxe baretu da...

Zerraldo datzan: Aidea geldi, zabal, hilda, gorputz: hor datza herio-zuritasuna.

Begirunerik: Santutegian gaude; hildako santu baten ondoan... Bertsoa biziki luzea da, hilak luze bait daude beti.

Sortzen ez diren berbak: Hildakoaren aurrean isiltzen goaz beti, ez da hitzik sortzen. Berba izan ez direnak, gorpuzgabeak ere, isilik daude, begirunez. Nolako begirune santua ote lukete jaioko balira hitz horiek?

Begiok hemen: Hasierara gatoz berriro. Begien tokia da hau: begitegia. Begiak ase-asetzeko lekua hauxe!: argi handi eta betea...

Begiok... harutzagoz: Arima, begi bihurtua, hemengo materiaren axala eten-zulaturik harutzago joan da: bere amesgurariak hautsi ditu, entzumenak kizunik, atzemangarririk, ez duen giroa atzean utzita. Materia mehetu denean, ametsak berak ere gainditu egin dira olerkariaren bihotzean. Hemengo mundu-argia igaro, amets-izadia pasa, eta horra olerkaria «hirugarren» mundu misteriotsuan.

Eta bihotzak...: Dena beterik, ametsen muin gozoa dastatu ondotik, komentuak bete du olerkaria: barnean du dagoneko mundu zoragarria. Gogobete dago komentuaren handia bere baitan duela. Arima ere argiz bete da, eta dena beretzat du (berekaxa).

4. **Birrirakurri:** Berriro irakurriko da poema; oso geldi, kasi letraz letra eginaz. Ongi deklamatuko balitz, askoz hobe.

Ederraren teknikabidea

E. Correa Calderón eta F. Lázaro-rengandik jaso da hau. Ikus autore hauen *Cómo se comenta un texto en el Bachillerato* (Ediciones Anaya, Salamanca) liburua. Hemen labur-labur ematen dut azterbide hau eta gauzak borobildu nahi lituzkeenak liburura bertara jo beharko luke.

- a) **MUGARRIAK:** Sei une ditu bigarren bide honek. Metodu hau

erabiltzeak baditu bere izerdiak, baina agian gogor ekinez gero ez litzake hain aldapa gora gertatuko. Nik neuk ez dut sobera erabili, eta barka bekit hemen zehaztasun handirik gabe aurkeztea.

1. **Irakurri:** Pauso hauk eman behar ditugu hemen:
 - ezagutzen ez ditugun hitzen esanahia bilatu,
 - hitzak zenbait esanahi balu, gure honetan egoki letorkeena hartu,
 - interpretaziotan sartu gabe, izkribu atala ongi konprenitu.
2. **Atalaren nondikakoa:** Zatia literatur kondairan kokatu behar da:
 - zattia da ala testu osoa?
 - zein literatur jenerutakoa dugu: poesia (epika, lirika, dramatika), oratoria ala didaktika.
 - Testu osoa balitz**, autorearen obra guzian duen lekua idoro beharko zaio.
 - Atala balitz**, hiru kasu gerta litezke:
 - 1) Irakurria den obrakoa izatea. Holakotan, autore horren gan obra honek duen zerikusia agertu behar da. Eta ondoren: zein leku dagokio testu honi obra horretan?
 - 2) Kapitulu nahiz obra ezagunekoa da. Idazlearen obraren barnean zein leku dagokio. Obra honen esanahia. Ager dezagun kapitulua eta hemen atalak duen tokia.
 - 3) Obra ezezagun batekoa da. Kursoko ikas-liburua mia dezagun eta gero 1) ponduan bezala jarrai gakizkion. Deus aurkituko ez balitz, laga dezagun eta goazen aurrera.
3. **Muinaren bila:** Orraz dezagun gure atalaren asuntua xehapen guzietatik. Ez dadila izan deus sobranterik, ez eta ezer eskasik ere. Labur-labur dena. Bila dezagun zatiaren hitz-bihotza, sintesi-hitza, laburpen-hitza. Honetan hutsegitea, komentario osorako bidea galtzea da: hau da hemen zereginik inportanteena, eta zailena.
4. **Barne-moldadura:** Esan-bideak badu noski hor estruktura bat. Ikus, ba.

- Metrika-neurri eta moldadurak azter ditzagun, atala bertotan balego.
- Temaren hara-honakoek daramazkiten zatiñoak ikus ditzagun. Ahapaldiek ez dute beti holakorik erakusten. Badaude gainera honelako zatigabeko atalak ere.
- Zatiño bakoitzean gain-hegadan dator tema.

5. **Formaren azterketa:** Benetako komentarioa orain egin behar da:

- Oinarria.** Testuaren tema beti ageri da testu beraren forman.
- Analisia.** Hauxe erakutsi behar du: testuaren forma-era bakoitza temaren beraren halabehar batek bultzaturik jaio dela. Hitzak, joskera, metrika, erretorika-irudiak, etab.: orok tema barnean aurkitu behar dute beren izan-arrazoia. Azterketa astun honetarako ikas-liburuek lagunduko digute.
- Idatzi.** Seigarren eta azken pondura pasa aurretik, orainartean ikusiak garbi-garbi idatziko dira.

6. **Amaiera:** Atzera begirada batean, erakus dezagun eskuarki, xehetasun gabe, oinarri legea nola bete den, eta ikasle bakoitzak eman beza bere iritzia: egiatia, apala, baina irmoa, hitz neurtuz emana.

b) **SAIAKERA BAT:** Ongi ezaguna den atala hartu dut nere jarduketa honetarako.

1. **Irakurri:** 1 (H)ura gizona, (h)ura!
 2 Zazpi oin ta erdi bai luze, makal-zugatza bezain zuzen,
 3 pagorik lodiena baizen zabal,
 4 arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel.
 5 (H)orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.
 6 Sendoak zeuden oraindik artzai za(ha)rraren beso zaintsuak,
 7 txit azkarrak bere oinak, zindoak bere bularauspoak.

Makal=chopo. **Zugatza**=árbol. **Bezain, baizen**=tan... como

Pago=haya. **Arte**=encina. **Bezela**=legez. **Trinko**=denso, macizo. **Gorosti**=acebo. **Zimel**=enjuto. **Zaintsu**=nervudo. **Azkar**=vigoroso, ligero. **Zindo**=sano, firme. **Bular-auspo**=pulmón. **Aristi**=roble dal. **Jaurti**=lanzar, arrojar.

2. **Atalaren nondikakoa:** **Garoa** nobelaren hasiera da atal hau; liburuaren lehenen kapitulutik jaso, beraz. Izkribu honen egile Txomin Agirre (1864-1920) dugu. Gainerako bere obretatik **Auñamendiko Lorea** eta **Kresala** ditu aipagarrienak, eta biok ere nobelak dira.

Garoa honek Zabaleta baserrikoen gora-beherak jaulkitzen ditu, eta bertako nagusi den Joanes da eleberriarren ardatz-pertsona, protagonista. Eleberriarren lehenen horrialdeetan horixe ematen zaigu: **Joanes gorputz-arimaz**, **zabal-zabal**, irakurlearen irudimenarentzat. Biziki ikusgarria zen artzain zaharra, eta benetan miresturik aurkezten digu idazleak. Mendian idorotzen du honek bere gizona eta txundituta gelditzen da haren gorputz-bikaintasunaz. Hementxe, lehenbiziko lerro hauetan, azaltzen zaigu Joanesen gorputz irudia. Ohar hauekin, badakigu honez gero, ataltxo honi euskal-literaturan dagokion eser-lekua zein den.

(Nahi izanez gero irakaslea mintza liteke Tx. Agirre idazleaz, honen izkribuez, baita euskal-nobelaz ere).

3. **Muinaren bila:** Idazleak zerbaitetarako izkribatu du hau. Asmo jakin bat bete nahi zuen noski. Zein da, ba, atal honen ideia-ardatza? Honatx: **Joanes zaharraren gorputz gazteak izkribatzaileagan sortu duen mirespena deskribatzeaz ematea.** Ideia honi begira, epaitu beharko dugu orain atal osoa: aukeratu duen bidetik helburu horretara iristen bada, idazleak lortu du nahi zuena.
4. **Barne-moldadura:** Atal hau ez dugu bertsoz egin, eta oraingoan behintzat bazter ditzakegu neurtitz-legeak. Agian, hala ere, egin liteke banaketaren bat, pentsamendua ez bait dugu bapatean ematen, mailaka baizik. Berriro irakurriaz, berehalakoan ikusiko dugu badela hor zenbait zatiño:
- a) Amirazio-esaera bat (1 lerroan).
 - b) Artzainaren gorputz-aurkezpen orokorra (2-4).
 - d) Epifonema bat (5).
 - e) Joanesen presentazio xehetua (6-7).

5. Formaren azterketa:

a) Zatia: (H)ura zan gizona, (h)ura!

Mirespen-irudi, amirazio-figura batekin hasten da. Temari zegokion erarik egokiena agian. Hiru balio eder aipa ditza-gun hemen:

Amirazio apropos bat deskrizio baten ordeko izan daiteke. Bere bidez ez zaigu ezer berezirik esaten, baina idazlearen gogo zehar zerbait ikusi dugunaren susmoa izango dugu. Ondoren etor daitezkeen zertzeladei aurrea harturik, aintzinetik sentipen beroz ematen zaizkigu.

Mirespen-irudiak irakurlearen jakin-gurea iratzarri egiten du. Ondotik letorkeena benetan jakingarri bihurtzen da gutretzat. Eta galdera xuxenean datorkigu mingain-punttara: zer zuen, ba, gizon horrek?

Esaeraren jatortasuna ere ongi euskalduna da. Erderara itzuliezina da hori. (H)uradun esaera oso gurea da, eta birresanez gehiago nabarmentzen da bere jatortasunean. Lorezko euskal arkupe honetatik garamazki protagonista-ganaino izkribatzaileak.

Temaren bihotz-bihotzean dago amirazio hau: egoki bait dator bai mirespena agertzeko, bai deskriziorako.

b) Zatia: Zazpi oin ta erdi bai luze, makal-zugatza bezain zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel.

Zer eta nolakoa zen, ba, holako amirazioaren iturria?, galdetzen diogu gure buruari. Hona!, erantzuten digu orain idazleak. Baina bere mirespenak bultzaka daramala, ezin dizkigu xehapen denak bertanbehera zabaldu. Temaren bi ideia-uneen (amirazioa eta deskrizioa) artean tiraka bat sortzen da: deskrizioa behar du, eta amirazioak begirada lausotu egiten dio idazleari.

Honegatik, gizandi haren aurrean, lehenbiziko «O!»-aren ondotik gorputz osoko erretratu bat emango digu Txomin Agirrek bigarren zatiño honetan, mirespenak ez bait du bestetarako betarik utzi. Beraz, argi dago hemen temaren bertakotasuna, presentzia.

Aukerakoa da deskrizio hau, baita bere gonbarazioengatik

ere. Izan ere, artzaina izanik Joanes, mendiko semea eta tontorretan hezia, inguruan zuen bizi-girotik jaso beharko zituen bere giza-edergailuak. Bere bizitzari dagozkion tasunak, kalitateak, ditu gure gizonak.

Joanes euskalduna ere bada. Honegatik, bere giza-tankera Euskal Herriarena da: Euskal Herriaren azala bere jantzia. Nolako arbola, halako ezpala. Zatitxo honetan hiperbolea gain-hegadan dabil; eta beti euskaltasun sirimiria dariola.

Ikus ditzagun epitetuak eta gonbarazioak. Zuhaitzetatik, gonbarazio-helburutzat, geureenak aukeratu ditu, maiteenak: makal-pago-arte-gorosti. Eta lerrotxo bat gehiago ekarri bagenu, geurekin izango genuen haritza ere. Eta epitetuak? Binaka ematen zaizkigu: gonbarazio-helburuari izaeraz dagozkion epiteturik aproposena ematen zaio (Pago **lodi**, arte **gogor**, gorosti **heze**) eta zuhaitzen kalitate horiek neurriagotu egingo dira Joanesgan gizatasunez jaztean (makala, **zuzen**, pagoa, **zabal**, artea, **trinko**, gorostia **zimel**). Ez ahal duzue inoiz holako gizonik ikusi: nik bai Kanpion'en **Narraciones Baskas**-eko apaingarri batean: Aitor bera zen... Eta guk, nola goraipatuko genituzke guk euskal-artzain baten gorputz-bikaintasunak?

Esan dugu, zati honetan ez dago deskribio-xehetasunik. Badakigu zergatik ere. Ez dakiguke, beraz, plastikotasun handirik eman, zerbait handiren susmapen miretsia baino. Gonbarazio asko, baina denak arras diferenteak dira. Artzainari ematen zaion pintzelada bakoitzak tonalidade berezia darama gonbarazio-lokarrian ere: **bezain - baizen**, - **bezela - antzera**. Zinema-travering bat dela esan liteke: hara honako honek gauza berari higidura bizia ematen dio teknika-mogimenduaren bidez.

Ikusten dugu, ba, honaino esan direnekin, zein artezki eman digun Agirrek bere amirazioari zegokion deskribio-jantzia, temak berak eskatzen zuen parekoa.

d) Zatia: (**H**)orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.

Amirazioz beteriko epifonema bat da. Ez dezala, gero, inork zalantzarik ukan, holakoxea zen gure gizona-ta. Honez gero irakurleak eskatzen dituen xehetasunetarako ate ire-

kia dugu afirmazio hau. Behin eta berriz tema begi-bistan da.

- e) Zatia: **Sendoak zeuden oraindik artzai za(ha)rraren beso zaintsuak, txit azkarrak bere oiñak, zindoak bere bularauspoak.**

Sendotasuna erakutsi nahirik (hori bait da lehenago ere adiarazi izan nahi digun tasun bat), hasiera-hasieran jarriko da «sendoak», inkiridu-legearen bortiztasuna zorrotzagotuaz. d) Zatiaren arrazoi-oinarria argitan jartzen du hemen: mirespena ez da batere harritzeko. Hitzak berak ere baduela eufoniak ematen dion sakontasun bat esan liteke: «s» hori gezi bat bait da, eta «n» eta «o» horiek sendotasunaren barreneraino garamazkite.

«Zeuden» aditzak iraupena ematen digu, aldakaiztasuna. Urteek ez dute ezer ikutu, lehengoan dirau sendotasunak. Ez ahal da hau biziki txundigarria. Joanes, bere haretan egon dago: ez dio «sendoak **ziren**»-ik, «**zeuden**» baino. Temaren uhinak honaino ere heldu dira. Eta ondotik datorren «oraindik» hori gogoan baldin badugu? Iraupen horren harrigarria!

Artzaina zaharra da. Datu honek kontraste-balioa du bereziki, deskriziorako beharrekoa dela ere, mirespen-arrazoiak hor bait dago. Sendotasuna besoetan ikusi ohi dugu gizonok, eta Agirrek beso zaintsuak aipatzen ditu, arestiko pago lodia ezin ahazturik behar bada. Ez dira xamurrak beso horietxek! Urteek eta lanek zaildu dituzte, bai! Zain gogorrez zertuak dira. Hona, ba; Joanes-i eman zekioken kalitaterik preziatuena: honen gain doaz, zankarteka, mirespena eta deskrizio-errealismoa.

Bigarren esakunean elipsi bat dadukagu: «zeuden» kendu egin da, ideiarenekin arin-arinari esateran bertan ere lagunduaz. «Txit» aberbioak ere ez dirudi eufoni asmorik gabe dabilenik, hitza bapatekoa bait da, bizkorra: onomatopeia? Ez ahal da gelditasuna, eta geldotasuna, zahartzaroaren penarik samingarriena: ba, gure artzain zaharrak ez du honelakorik ere. Miragarria zinez!

Hirugarren begirada batean ere bada Joanes-gan zerbait

berririk. Ez zen bera itxurazko gaztea bakarrik, egiazkoa baizik. Kanpo eta barne, bere gaztetasuna gorputz guzira isuria zuen. Ez zen harengan zaharren arnas hestukarik, bular-zindotasuna zuen barrutik.

Hona hiru datu laburretan oso-osorik gizona: beso-oin-bular. Gorputzeko gazte-bikaintasunik nabarmenenak hor izan ohi dira. Bereziki hemen ageri da nabarmen-nabarmen ataltxo honen tema: deskizio-amirazioak. Esaeraren hara-honakoak beti du gainera, zerbait berririk, betiko egoera eta ibilera berdinak utzita: **sendo... -txit... -zindo...** esaera bakoi-tzak du bere hitz-ordenamendua. Artzainaren mendi-ibilal-dien antzera, frasea ere ibiltari da.

6. Ondorenak.

Agirre beti izan da maisu bere izkribuak euskal-arnasez biltzen, eta hemen ere bizi-bizi daduka bere balio handia: gogora lehenen zatiñoa, hor bait dago nabarmenen hizkeraren euskaltasuna; berdintsu bigarreanean ere. Agirre erromantikoa dela esan da, eta lehenengo zatiñoan horrelakorik suma dezakegu, zerbait galduaren tristura alegia: **ura... ura**, esango digu. Gaurogero honelakorik ez dela, esan nahi zaigu nonbait: nostalgja, lehen-mina du izkribatzaileak bihotzean. Eta bihotz-samin hau nobelaren muina da. Laburki erakusten zaigu gizaki miresgarri hori: gonbarazio ames-arazlez eta zehaztasun baliotsuz. Atal honi edonondik darizkio idazlearen amirazio eta lehen-ametsa. Deskrazio dena bihotz-hunkitu honekin ondua dator.

Izadiam barna

Hirugarren metodu hau lehenengo osagarri eta bikaingarri da. Ez dut uste euskeraz gaurregun erabil dezakegunik, eta ez noski komeni ez zaigulako, behar genituzkeen liburu eta tresnak falta zaizkigulako baino. Rizzi-gandik jasotzen dut eta nahi duenak *Humanidades* aldizkarian aurki lezake (33gn. zenb., 383gn. horrialdean. Comillas-ko Unibertsidadeak argitaratua da errebista). Hemen gainbegiratu bat bakarrik emango diogu denari.

Mugarriak: hiru pondutan eman genezake (errealidadearen analisisa, idazkiaren analisisa, osakuntza):

1. Errealidadearen analisisa.

—**Hitz-izadia:** Izaki naturala bere ikusguneetan, aspektuetan, aztertu: ura-elurra... Hiztegian, hitzaren esanahi eta argilunak ikusi: sinonimuak, antonimuak... Esanahi berdintsuko hitzak sailka taldetu: galgai, poil-poil...

—**Izpiritu izadia:** Izakiak sinbolu ere badira eta sinbolutasun hori idoro behar dugu. Zein giza-errealidade ematen digute izakiek sinbolupean?: mendiak giza-irmotasuna ukan dezake sinbolutan...

2. Idazkiaren analisisa.

Poetak errealidadea hautatu egiten du, eder aldetik garbitu eta bat egin: bere goi-hatsaren eragitez, mundua ederrez baliotsu bilakatzen da. Baina irakurleak gertu egon behar du olerkariak ematen dion izaera berri hori atzeman eta jasotzeko. Honetara, irakurlea prestatzera alegia, zuzentzen da analisi hau.

a) Analisis-atarian:

—Idazkiaren esplikazio literala.

—Idazkiaren asuntu-aurkientza (ojetua: zero izartsua Fr. Luis-en **Noche serena**-n).

—Idazkiaren tema-ideia (ojetuan begiratzen dugun ikusgune apartekoa: zero izartsuaren ederra **Noche serena**-n).

—Idazkiaren ideia poetikoa (poetaren kontenplaerak duen trazendentzi-balioa: mundutar bizitzatik besterako igobidea **Noche serena**-n).

b) Analisisa:

—Esaeraren balio-semantikoa: objektuak (zerua, argiak, lurra...), sentimenduak (argiz apaindua, urrats isilez...), ideiak (zein patu gaiztok naduka loturik?... Hau dena **Noche serena**-n).

—Esaeraren gramatika-joskerak: fonologia, morfologia, sintasia... Orain ikusi behar da poesiaren tema-ideiak eta gramatika esaerak elkarri nola laguntzen dioten.

—Esaeraren estilistika: Erretorika-irudiak...

—Esaeraren arkitektura: Nola iruten dira poesia aldiak, pertsonak, objektuak. Osaki bakoitza nola kokatzen da olerkiaren barnean.

d) **Birkreazioa:**

Analisiak, poesia-gorputza zatitu, biziabaki, egin du. Baina gure zeregina burutuko bada, ikusia birsortu egin behar da. Gurekuntzak eta imitazioak mailaka joan behar dute: 1.º hitzak geretu eta imitatu, 2.º gramatika-usarioa, 3.º erretorika-irudiak.

3. **Osakuntza.**

Edozein izakik hamar mila sarrera-ate ditu, eta guziotatik sar gaitezke olermenaren laguntzaz:

—**Literatur hesparruan:** aztertu dugun atalaren pareko izkribuak irakurri.

—**Ikus-arteetan:** kuadruak, dokumentalak, telebista...

—**Entzun-arteetan:** musika-saioak, kontziertuak... Dena gure gaiari dagokiona.

—**Naturalezaren, izadiaren, bizipenak:** ibilaldiak, ikustaldiak...

D) **Beste zenbait irakasbide**

Literatur irakaskintzarako bada noski ikasbide egokirik frango, baina hemen emango ditudanak, neuk erabaliak bakarrik dira. Aipatu ditudan beste hiru horiek baino praktikagarriagoak hasera batetan. Dena dela, eginkizun honetan ere, heziketa guzian bezalaxe, haur bakoitzak dakarren barne etorriaren askatasuna eta maisuak eman dezaiokeen idarokizuna elkartu beharko dira: ikusarazi, entzunarazi, sentiarazi egin behar zaio haurrari, baina beti bere erara egin dezala.

Nere esperientzia kaskarrak ezer balio baldin badu, bide erraz eta probetxuz erabil daitezkeenak badirela esango nuke hamar-hamalau urteetako nexka-mutilentzat batez ere. Hona:

a) **Jardukizunak ezarri**

Haurra izadian bizi da eta ezagutzen du izadia; baina oraindik

ez du, eskuartean, literaturarik: izadia paperean emateko hitza falta zaio. Inguruko izadian gal ez dadin, izaki bat hautatu eta paperean hitzez deskribatzera bortxa genezake.

Zuhaitza, hodeia, argi-printza, errekastoa, xoria, izarra, amaren aurpegia, ilunabarra, teilatua, etab., etab. Euskal poesian badago honetarako, jardukizun hauen osagarri izan daitekeen lan ederrik. Ikus aurrerago luzagarria.

b) Irudi bila

Bi eratara egin liteke lan hau: egindako olerki batetik nahiz hitz lauzko idazki batetik, edota ideia jakin batentzak metaforak-eta bilarazi:

—**idazkiak aztertzen:** hartzen da olerki bat. Hor dago hori bere osotasunean, olerkariak eman zigun bezalaxe. Badira hor erretorikak aipatzen dituen irudiak; eta badaki gazteak zein zaila den horiek sortzea: irudi horiek beren barne ideietara ekarriaz gomentatu behar ditu ikasleak. Esate baterako, Gandiagaren **Xirimiri** olerkia har dezagun. Nere ikasleak badaki nolakoa den lanbroa, askotan jasan bait du Arantzazun.

Olerkiak

Xirimiri txanka meia,
nora barik eta bustia,
baso aldetik agertu da gaur,
artzaiek, tontoz jaurtia.

Komentarioak

Xirimiria muttikoa da, luxemeia. Ez du seriotasunik, ez gizontasunik. Ez da benetan gizon prestua. Formalidade guti du bere hara-honakoetan, eta Urbiako artzainek, tontotzat harturik, bota egin dute handik.

Horra olerkariak lanbroa irudiz jantzi.

—**irudiak sortzen:** aurreko horren alderantzirakoa da. Orain ideiak eman eta hauei legozkiekeen irudiak bila ditzala eskatzen zaio. Irakaslearentzat lan erraza gerta liteke, berak alde aurretik hauta bait dezake irudiz jantzi nahi den ideia darabilen poesia bat. Ikasleari ideia ematen diogu, irudiz eman dezaigun:

Idea

Nigan larritasun handi bat dut.
Samingarria benetan.
Goibeldu egiten nau nere barru
guzian.
Dena tristetu zait, eta tristura
denon gain, hor dut oraindik
nahi eta gurari bat.

Olerkariak hala dio

Harkaitzak, elorriak,
biak gorri,
arima emon eutsen
aideari.
Arratsalde guztia
laino busti.
Joran bat zen arima,
mendiz mendi.

d) Olerkiak osatzen

Poesia egoki bat hautatu eta inausi egiten dugu, epitetu, irudi, gonbarazio, etab. kenduaz. Poesia osatzera behartzen dugu orduan ikaslea. Gehienek gustora egiten duten lana da hau, ez bait zaie zaila gertatzen. Lanaren ondoren, aurkitzen dituzten pitxien ditzira argitara eman behar zaie espresuki, lehenengo komentario-metoduaren (ikus **edermenaren iratzarbidea**) arabera irakasleok zerbait eginaz.

Lanketa hauek zenbaitetan poetaren lana bera ere hobetu egin dezakete, eta hau ikusteak berebiziko erakarmena du ikasleagan, aurrerago jo dezan. Literaturaren grina sortzeko, metodubiderik erosoenetakoa dela esan liteke. Ikus, esate baterako, ilunabarraren argia olerkariarentzat **more-biguna-fresko-leguna** zen tokian zer eman zuten ikasleek:

1. urtu-goria-epel-makala
2. gozo-txukuna-motel-kutuna
3. legor-joanbera-ilun-hilbera
4. urre-mehe-bigun-bare
5. urdin-iluna-eztitsu-goxoa

III. NOR IRAKASLE?

Hainitz dira bideak, baina guzian bidegurutzean ikasle-irakaslearen arteko harremana. Eta literaturarako eginahaletan maisu onak ukanen du bai biderik. Ardurazkoena eta nekezena, beti bezalatsu, hezitzaile ona aurkitzea hemen ere. Irakasleak lirura-

pen-makilatxoa behar du, sorkari eta kreatura bakoitza eder dezan, edo hobeki esateko, izaki bakoitzaren ederra ikaslearen aurrean argitara dadin. Ikasleak ez du izadia izan larru gorritan ikusi behar; izanaren ederraren zoramena idoro dezala beti. Honetarako ez litzake gaizki etorriko irakasleak haren aurrean idaz-lan zenbait izkribatzen baldin badu.

Lehenen izadiko zerbait erakutsi eta bere ederra bilatzera behar ditzagun gure mutilak, eta ondoren, beharbada ezinean eseri direnean, eder hori, mamiturik, eskuartean erakutsi: hona hemen! Leiho bat ez da gehiago lehiu izanen, ederrera ihesbide baizik. Lorea ez da botanika ikaskizun gertatuko, ederraren muin printza baino. Zelaia ez da belardia izango, edertasun berde hezea izanen da. Eder-mundurako sarrera ez dago asmatu beharrik, inguruan eman zaigu: izadia bera da haurraren hezitzaile onena, gizonon arte-sorkariak baino areago. Ikusaraz dezaiegun mundua, gero izkribuz ere birkreaziora jo dezaten, ederra atzeman duenarentzat gogorra bait da barnean gordetzea. Gure gazteen gogoak eder-zoramenetan blai jar ditzagun, lehenbaitlehen idazle ere bihur daitezen.

Honetarako irakasleak berak egon behar du noski erne, mundu hori *ikusteko*. Nexka-mutilen begiak hara eta hona zuzendu behar dira: atzo, gaur, bihar, orain, han, hemen, basoan, iturrian, karrikan... Beti eta nonahi begiak zabal: leihopeko jolasak, gauaren isila, haraneko terrala, arratseko lehen izarra, baratzeko lora jaiu berria, zelai erdiko pinu beltza, kearen gora-nahi neurtua, udazkenaren heriotasuna... Oro da irakaslearen laguntzaile eta ikaslearen hezigarri.

Baina eginkizun hau betetzeko, esan gabe doa, irakasleak berak izan behar du poeta eta ederraren dastatzaile eta asma-tzaile. Hortik izanen bait du maisuak sentiarazteko indarrak. Badaiteke bera idazle ez izatea, baina direnen obrez baliatzen jakin behar du. Norbera apurño bat artista eta literatura emateko

eskolatua baldin bada, ez goaz hain gaizki. Eskolatua esatean, euskal alorretik kanpo ibilia dena ere esan nahi dut. Kultura orokor baten jabe izan behar du irakasleak. Ez da dudarik.

Eta euskal literatura ongi ezagutu behar luke. Literatura eta gramatika ere; dena bait da premiazko. Ikasleak ederra barna hizkuntza menperatzen joan behar du, mintzairaren tresneria eza-gutzekoa bait da eta izan ere artistari bere lanabesa emateko deitua izan bait da irakaslea.

Luzagarri: **IZKRIBU GAIETARAKO OLERKIAK**

Oharra: Lehenengo ekinaldi batetarako idarokizuna, sujerentzia, da hau. Onaindiaren *Milla Euskal-Olerki Eder* (ME) liburutik jaso dut batezere poesia horien aipamena. He-men aipatzen ez diren zenbait gogoan hartu beharra dugu: G. Aresti, M. Lasa, Xabier Azurmendi, etab., etab. Hautapena erabat konbentzionala da, eta adibidetzat aukeratuak dira olerkiok. Ez du, beraz, balio antologikorik ere; baina hasera batetan lagungarri gerta daiteke.

ABEREAk: **Erbiak eta igelak** (Oxobi, ME, 963). **Oillaskoa eta axeria** (Oxobi, ME, 969). **Axeria eta mahatsak** (Oxobi, ME, 970). **Igelak** (Mirande, ME, 999). **Katuari** (Kerexeta, ME, 649). **Usoa** (Elizondo, ME, 676). **Mitxeleta** (Jakakortajarena, ME, 811). **Paris-ko txolarrea** (Lizardi: Biotz-begietan, 50).

ABERRIA: **Gernikako arbola** (Salaberry, ME, 984). **Errimiña**, (Azkue, ME, 252). **Eusko-bidaztiarena** (Lizardi: B-B, 116). **Euskaldunen ipuin berriak** (J. Azurmendi: Hitz berdeak, 154). **Manifestu atzeratua** (J. Azurmendi: Olerti-n argitara emana). Ikus G. Aresti-ren **Harri eta Herri**, eta **Harrizko herri hau**. Gai hontaz erruz mintzatu da euskal poesia.

ARRATSALDEA: **Arratsaldeak** (Gandiaga: Elorri, 96). **Ilhuntzia** (Babaki, ME, 987). **Argia geldi dago** (J. Azurmendi: H-B, 105).

BAKARDADEA: **Urtetan** (J. Azurmendi: H-B, 141).

- EKAITZA:** **Galerna bat mendian** (Barbier, ME, 948). **Ekaitza** (Etxaniz, ME, 873).
- ELURRA:** **Goizaldeko elurra** (Lauaxeta: Bide Barriak, 122). **Edurra** (Gandiaga: Elorri, 188).
- GAUA:** **Gau eta Ta orain gau da** (J. Azurmendi: H-B, 38-39). **Zorionaren; Iluna; Gau; eta Iretargia** (Gandiaga: E., 186, 178, 100, 107). **Gabeko irrintzia** (Lauaxeta: B-B, 38).
- HERIOTZA:** **Haur hilaren arreba ta ama** (Lafitte, ME, 978). **Xaubadin** (Lafitte, ME, 982). **Xabierto-ren eriotza** (Lizardi, ME, 770). **Otartxo utsa** (Lizardi, ME, 773). **Herioa** (J. Etxeberri, ME, 155). **Otoi adiskide** (Loramendi, ME, 818). **Poema beltzaren arbola eta Aita hil** (J. Azurmendi: H-B, 54 eta 51).
- HILETAK:** **Biotzean min dut** (Lizardi, ME, 774). **Aitaren ehorzketa** (J. Azurmendi: H-B, 122).
- ILUNTZA:** **Iluntzeko** (Gandiaga: E., 176). **Arrats gorri** (Lizardi: ME, 781). **Ilunabarra** (Arruti: ME, 706).
- IRRINTZIA:** **Irrintzina** (Barbier, ME, 947).
- ITURRIA:** **Iturri-negarra** (Lauaxeta: B-B, 40). **Ur-xirripa inhar batekin gudian** (Lafitte, ME, 977).
- ITSASOA:** **Uhainen dantza** (Lafitte, ME, 976). **Itsasora!** (Lauaxeta: B-B, 137). **Itsasoa** (Iratzeder, ME, 990). **Itxasua** (Etxeita, ME, 516).
- KEA:** **Etxeko kea** (Lizardi, ME, 782).
- LANBROA:** **Xirimiri** (Gandiaga: E., 60).
- LOREA:** **Mao Gorri** (Lauaxeta, B-B., 28). **Lore igarra** (Tapia-Peurrena: ME, 888). **Lora bateri** (Errebido: ME, 244). **Lore-buru** (Gandiaga: E., 52).
- NEGUA:** **Bizia lo** (Lizardi: B-B., 88).
- UDA:** **Baso itzal** (Lizardi, B-B., 88).
- UDABERRIA:** **Neskatx urdin-yantzia** (Lizardi: ME, 772). **Sagarlore** (Lizardi: ME, 775).
- UDAZKENA:** **Ondar gorri** (Lizardi: ME, 775). **Udagoena; Udagoenusaina** (Gandiaga: E., 193, 195).
- ZUHAITZAK:** **Zuaitz etzana** (Lizardi: B-B., 80). **Pagoa eta Pinu** (J. Azurmendi: H-B., 28, 111).